

Mundualdia Usurbilen kartel-egitarauaren diseinua egiteko lehiaketaren oinarriak



Antolatzailea
Usurbilgo Udala



Usurbilgo Udala

Mundualdia Usurbilen kartel-egitarauaren diseinua egiteko lehiaketaren oinarriak

Usurbilgo Udalak Mundualdia Usurbilen kartela- egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa antolatu du.

NORI ZUZENDUA

Lehiaketa publikoa eta irekia izango da. Lana originala eta argitaratu gabea izango da, beste lehiaketetan parte hartu gabea, eta ez da izango beste lan batzuen kopia, ez guztiz, ez zati batean.

Lehiaketa honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun. Nahi adina lan aurkez daitezke.

SARIA

Lehiaketa irabazten duenak 200 euroko saria jasoko du.

LANA NOIZ ETA NON AURKEZTU

Lana irailaren 1a baino lehenago erregistratu behar da Usurbilgo Udaleko erregistroan edo postaz bidali beharko dira. Hona hemen helbidea:

Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia Plaza z.g.
20170 Usurbil

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, posta-bulegoan bidaltzen deneko data justifikatu beharko da, eta egun berean e-maila bat bidaliko da udalera erregistroa@usurbil.eus helbidera.

LANA NOLA EGIN ETA NOLA AURKEZTU

Egitarauaren diseinua egiterakoan, egitarauaren testua txertatzeko aukera eman behar duela aurreikusi behar da. (Behin betiko testua txertatu beharko du)

Horretaz gain, Usurbilgo Udaleko logoa ere eduki beharko du.

Mundualdia Usurbilen kartel-egitaraua euskaraz eta gazteleraz egingo da; euskarak lehentasuna izango du. Beste hizkuntzak bertan agertzea ere baloratuko da.

Lanaren neurria librea izango da.

Lanak euskarri digitalean eta paperean aurkeztu behar dira. Euskarri digitalean: CD edo pendrive batean, aurkeztu beharko da eta PDF formatuan egongo da.

Lan irabazlea aukeratzekoan, epaimahaiak kontuan izango du lana inprimatzeak izango duen kostua. Inprimaketa kostuak, beti ere, bat etorri behar du udalak aurreikusita duen aurrekontuarekin. Gehiegizko gastua lana baztertzeke arrazoia izan liteke.

Erabakia hartzeko orduan, garrantzi handia emango zaio, besteak beste, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari eta gaiarekin harreman zuzena izateari

Proposamen bakoitzeko, bi kartazal aurkeztuko dira, –A eta B –, eta hauen kanpoaldean, ondoko datuok jasoko dira:

- Egilearen izen goitia
- A edo B kartazala den (kasuaren arabera).
- Mundualdia Usurbilen kartel-egitarauaren lehiaketa.

A kartazala: aurkezleari buruzko datuak bilduko dira: izen-abizenak edo elkartearen izena, IFZ/IFK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa eta hura identifikatzeko behar den beste edozein datu.

B kartazalean: proposatzen den diseinua joango da, euskarri digitalean eta paperean.

Kartazalean eta B kartazaleko dokumentazioan izen goitia ez den beste izenik erabiltzen bada identifikatzeko, eta izen horrek parte-hartzailea zein den jakiteko bidea ematen badu, parte hartzaile hori lehiaketatik kanpo geldituko da.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia Mundualdia Usurbilen antolakuntzako kide batek, parekidetasun eta aniztasuneko zinegotzi eta teknikariak eta Udaleko komunikazio arduradunak osatuko dute.

OHARRAK

Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da. Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da. Izan ere, emakumezkoak eta gizonezkoak neurri berean ekintzaile eta protagonista modura agertu behar dira, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak agintzen duen modura.

Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar besteko kalitaterik.

Lanaren jatorrizko diseinuak inprimatzerakoan, aldaketaren bat izan lezake. Irabazleak, kartel-egitarauko azken aldaketak egin beharko ditu inprentara eraman aurretik.

Hautatutako diseinuaren egileak Usurbilgo Udalarari lagatzen dizkio ustiapen eskubideak.

Lehiaketara aurkeztutako lanekin Udalak erakusketa bat egin lezake.

Lehiaketan parte hartzeak ezinbestean dakar oinarri hauek onartzea.

Argibide gehiagorako: 943 371951 / erregistroa@usurbil.eus